



## **LAN HITZARMENEN MAHAIAREN LABURPENA 8. mahaia**

Azken ostiralean, apirilaren 12an, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen lan hitzarmenerako negoziazio mahaiaren bilera berria izan genuen.

Epaitegi Gorenaren epaia eta 5 hilabete geroago eta Kristau Eskolak eskatuta 2012ko abenduaren 19an negoziazioak berrartu zirenetik lan hitzarmeneko mahaiaren 5 bilera egin eta gero, patronal honek proposamen zehatza aurkeztu zuen azkenean:

KE-k 2013ko abendu arte lan hitzarmenaren luzapen partziala adostea proposatu zuen eta zorra zatika ordaintzea: 2010 eta 2011koa, aurten, eta 2012koa 2014 zehar. Azken honetan epaia eman zenetik urtebete baino gehiago igaro denez zorraren ordaintza bermatuko lukeen formularen bat erabiliko litzateke. Zatiko luzapen honek gainontzeko gaiak lasaiago negoziatzeko aukera emango liguke.

Honen truke, KE-k exijitzen du langileok onartzea 2013ko ordaintzak Eusko Jaurlaritzatik jasotzen ari diren finantzaketari egokitzea, hau da, oraintxe aplikatzen ari diren lansari-taulak Lan Hitzarmenean onartzea.

STEE-EILAS-ek proposamena ordezkari- batzarrean aztertuko zuela eta hurrengo bileran balorazioa aurkeztuko zuela adierazi zuen. Gainontzeko sindikatuek ere ez zuten haien jarrera aurreratu.

STEE-EILAS-ek KE-ri eskatu zion Gasteizko Egibide ikastetxearekin argitzea zein izango den zorraren ordaintzari buruzko jarrera. Egibide, Diocesanas (lan hitzarmen propioa du eta enpresaren aldeko murrizketei buruzko EHJANeko epaia duena) eta Jesús Obrero, KE-ko ikastetxea, elkartzean sortu da. Ez litzateke onargarria izango ikastetxe berean langile batzuek zorra kobratzea eta beste batzuek ez. KE-k erantzungo zuela agindu zuen.

Lan hitzarmenarako mahaiaren hurrengo bilera maiatzaren 7an izango da. Jakinaren gainean izango zaituztegu.

### **Hezkuntzan STEE-EILAS**

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>